

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2024ko ekaina

Ekainean % 0,9 egin dute gora ostatu-gauak landa-ostatueta eta % 10,8 Euskal AEko apartamentu turistikoetan

Aterpetxe turistikoetan, bestalde, ostatu-gauen gehikuntza % 16,1ekoa izan da

2024ko ekainean, Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak % 9,7 murriztu dira eta ostatu-gauak % 0,9 gehitu, aurreko urteko hil beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Sarrerak 16.966 izan dira eta ekainean 39.283 ostatu-gau erregistratu dira.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Ekaina 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024/06	m/m-12 (%)	2024/06	m/m-12 (%)	2024/06	2023/06	2024/06	p.p. *	2024/06	p.p. *
EUSKAL AE	16.966	-9,7	39.283	0,9	2,32	2,07	29,6	1,1	36,6	3,2
Estatukoak	11.132	-8,6	26.185	1,8	2,35	2,11	-	-	-	-
Atzerriarrak	5.834	-11,8	13.098	-0,9	2,25	2,00	-	-	-	-
Araba/Álava	2.959	-5,4	6.498	16,1	2,20	1,79	19,8	3,3	25,0	5,1
Estatukoak	2.305	-9,5	4.954	12,5	2,15	1,73	-	-	-	-
Atzerriarrak	654	12,8	1.544	29,7	2,36	2,05	-	-	-	-
Bizkaia	5.304	-16,0	13.337	0,9	2,51	2,09	35,4	3,3	43,3	6,0
Estatukoak	3.422	-19,8	8.859	-2,7	2,59	2,13	-	-	-	-
Atzerriarrak	1.882	-8,1	4.478	8,8	2,38	2,01	-	-	-	-
Gipuzkoa	8.703	-6,9	19.448	-3,3	2,23	2,15	31,2	-1,5	38,1	0,1
Estatukoak	5.405	0,8	12.372	1,3	2,29	2,28	-	-	-	-
Atzerriarrak	3.298	-17,3	7.076	-10,6	2,15	1,98	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Uztailaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko ekainarekin alderatuta % 11,8 jaitsi ondoren, atzerriko bisitarien sarrerak Euskal AEko landa-ostatueta 2024ko ekainean izandako sarrera guztien % 34,4 izan dira. Ostatu-gauen kasuan, bestalde, atzerriar jatorrikoenak guztizkoaren % 33,3 izan dira, aurreko urteko hilabete beraren aldean % 0,9 murriztu ondoren.

Lurralde historikoen arabera, sarrerak % 5,4 jaitsi dira Araban, % 6,9 Gipuzkoan eta % 16,0 Bizkaian. Ostatu-gauen kasuan, Gipuzkoan % 3,3 jaitsi dira, eta Bizkaian eta Araban, berriz, % 0,9 eta % 16,1 igo dira, hurrenez hurren.

Euskal AEn mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia 2,32 egunekoa izan da ekainean, 2023ko hil berean izandako 2,07 eguneko batez besteko egonaldia baino zertxobait luzeagoa. Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari.

Plazen eta gelen okupazio-mailek urte batetik bestera ehuneko 1,1 eta 3,2 puntu egin dute gora, hurrenez hurren; plazen arabera neurtuta % 29,6n kokatuz eta logelen arabera neurtuta % 36,6n.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2024ko ekainean 18.174 sarrera izan dira guztira; horren ondorioz, 59.284 ostatu-gau izan dira. Zifra horiek aurreko urteko ekainean erregistratutakoekin alderatuz gero, % 8,3 igo dira sarrerak eta % 10,8 ostatu-gauak.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten ardurapean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, eta arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Ekaina 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2024/06	m/m-12 (%)	2024/06	m/m-12 (%)	2024/06	2023/06	2024/06	p.p. *	2024/06	p.p. *
EUSKAL AE	18.174	8,3	59.284	10,8	3,26	3,19	40,3	1,9	69,4	6,6
Estatukoak	10.662	7,9	34.798	11,4	3,26	3,16	-	-	-	-
Atzeritarrak	7.512	8,9	24.486	10,1	3,26	3,22	-	-	-	-
Araba/Álava	915	-39,3	9.386	25,2	10,25	4,97	30,1	6,5	79,2	22,2
Estatukoak	774	-39,6	6.309	11,8	8,15	4,40	-	-	-	-
Atzeritarrak	141	-37,5	3.077	65,8	21,83	8,23	-	-	-	-
Bizkaia	11.913	17,2	25.741	10,8	2,16	2,29	39,9	-0,4	56,2	2,2
Estatukoak	6.945	11,8	13.946	2,9	2,01	2,18	-	-	-	-
Atzeritarrak	4.969	25,7	11.795	21,9	2,37	2,45	-	-	-	-
Gipuzkoa	5.345	4,7	24.157	6,1	4,52	4,46	47,1	1,3	78,4	5,4
Estatukoak	2.943	23,3	14.543	20,6	4,94	5,05	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.402	-11,6	9.614	-10,1	4,00	3,94	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Uztailaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera eta ostatu-gau guztien % 41,3 atzerriko jatorriko bisitariei dagokie, 2024ko ekainean % 8,9ko eta % 10,1eko urte arteko igoerak erregistratu ondoren, hurrenez hurren.

Euskal AE osoko apartamentu turistikoetan batez besteko egonaldia 3,26 egunekoa izan da 2024ko ekainean —2023ko ekainean baino handiagoa—. Mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia 10,25 egunekoa izan da Araban, 4,52 egunekoa Gipuzkoan eta 2,16 egunekoa Bizkaian.

Plazen arabeko okupazio-maila, Euskal Autonomia Erkidegoan, % 40,3ra iritsi da, hau da, ehuneko 1,9 puntu igo da 2023ko ekainarekin alderatuta. Apartamentuen okupazio-mailak ehuneko 6,6 puntu egin du gora, eta % 69,4koa izan da.

Euskal AEko **turismo-aterpetxeei** dagokienez, 2024ko ekainean urtetik urterako sarrerak % 4,4 igo dira, 25.726 guztira, eta horrek, guztira, 50.474 ostatu-gau erregistratzea eragin du. Bizkaian 32.396 ostatu-gau erregistratu dira, urte arteko % 46,1eko igoeraren ondoren, eta Gipuzkoan 17.558 ostatu-gau, 2023ko ekainarekin alderatuta % 12,8ko jaitsieraren ondoren. Azkenik, Araban 520 ostatu-gau erregistratu dira, aurreko urteko hilabete berean baino % 54,7 gutxiago.

Ostatu mota horretako egonaldien batez besteko iraupena, 2024ko ekainean, 1,96 egunekoa izan da Euskal AE osoan, eta plazen okupazio-maila, urte batetik bestera ehuneko 6,8 puntu igo ondoren, % 49,7ra iritsi da.

Sarrerak, gaudiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko aterpetxe turistikoetan. Ekaina 2024

	Sarrerak		Gaudiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2024/06	m/m-12 (%)	2024/06	m/m-12 (%)	2024/06	2023/06	2024/06	p.p.
EUSKAL AE	25.726	4,4	50.474	16,1	1,96	1,76	49,7	6,8
Estatukoak	11.670	3,9	25.599	21,0	2,19	1,88	-	-
Atzeritarrak	14.056	4,8	24.876	11,5	1,77	1,66	-	-
Araba/Álava	306	-62,8	520	-54,7	1,70	1,40	13,0	-11,2
Estatukoak	284	-61,6	496	-53,3	1,75	1,44	-	-
Atzeritarrak	22	-73,8	25	-71,8	1,13	1,05	-	-
Bizkaia	15.154	22,7	32.396	46,1	2,14	1,80	59,8	17,0
Estatukoak	7.363	30,9	17.467	57,0	2,37	1,98	-	-
Atzeritarrak	7.790	15,9	14.929	35,1	1,92	1,64	-	-
Gipuzkoa	10.267	-10,6	17.558	-12,8	1,71	1,75	40,5	-4,6
Estatukoak	4.023	-17,4	7.636	-14,9	1,90	1,84	-	-
Atzeritarrak	6.244	-5,5	9.922	-11,2	1,59	1,69	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Uztailaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Informazio-oharra

ETHren inguruan emandako erantzun-tasa hilabete honetan % **97,2**koa izan da landa-ostatuetan, % **87,9**koa turismo-apartamentuetan eta % **87,0**koa turismo-aterpetxeetan. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62